

**MIREN AZKARATE VILLAR
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

(Egoitza, 1992-11-27)

MIREN AZKARATE VILLAR EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Egoitza, 1992.11.27

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

Agintari agurgarriak,
Euskaltzain kideak,
Andereak eta Jaunak,

Euskaltzainburu naizen lau urte hauetan, bostgarren aldikotz egiten diot euskaltzain berri bati ongi etorria. Hola agurtu ditut Ibon Sarasola, Donostian; Jose Antonio Arana-Martija, Gernikan; Txomin Peillen, Baionan; Beñat Oihartzabal, Angelun eta, egun, Miren Azkarate, lehenbiziko euskaltzain emaztea Euskaltzaindiaren egoitza berrian, Bilbon.

Bi gertakari ohargarri beraz:

- Lehen aldikotz emazte bat sartzen dela Euskaltzaindian.
- Gure egoitzan, lehen aldikotz, egiten dela sarrera mintzaldia.

Ez da dudarik aro berri batean sartzen ari dela Euskaltzaindia. Alde batetik, bost euskaltzain gazte bereganatuz, gaztetzen ari da eta hori epe labur batean. Edozein Akademia baino gazteago da Euskaltzaindia, horrek esperantzaz betetzen naularik. Alabainan, indar eta ahal gazteen beharretan dago Euskaltzaindia, hain da handia bere aurrean daukan lana.

Bertze aldetik, emakume bat sartzen da orai artio gizonez bakarrik hornitua izan den erakunde batean. Ez da harritzekoa! Azken hogeita bost urte hauetan, emazteen balioa ezagutua da eremu guzietan: politikan, administrazioan edo funtzio publikoan, hezkuntzan bereziki, Unibertsitatean halaber, erakasle edo ikerle gisa —hau da euskaltzain berriaren kasua— komunikabideetan, literaturan, bertze akademietan, nahiz frantsesean, nahiz espainiolean.

Galdeginen dit norbaitek: zertako iragan da hainbeste denbora emakume baten onartzeko Euskaltzaindian? Erantzunen diot 300 urte baino gehiago iragan direla frantses Akademian emazte bat hautatua izaiteko

eta espainiol Akademian 200 urte baino gehiago, hau berantago sortu zelakotz. Guk, aldiz, 75.urtean sartzera goazilarik, jadanik hautu hori egin dugu.

Bertze batek —emazteen aurka dagoen batek eta badira holakoak oraindik— erranen dit moda berri bati jarraiki zaiola Euskaltzaindia. Eta ez da egia. Badu orai 400 urte baino gehiago garaztar idazle batek, apeza bestalde, idatzi zuela olerki eder bat “Emazteen fabore” deritzana. Moda zaharra da, beraz, emazteen alde izaitea.

Ikus ditzagun gauzak diren bezala. Joan den abenduaren azken egunetan zendu zen Aita Joxe Migel Barandiaran 102 urte betetzera zoalarik. Aurtengo urtarrileko bilkuran jakinarazi nuen hutsunea eta orduz gero hasi zen bi hilabeteren epea euskaltzain-gaien aurkezteko. Otsailean hiru euskaltzainek, Patxi Altuna, Juan San Martin eta Juan Mari Lekuonak proposatu zuten Miren Azkarate Villar anderea. Martxoko bilkuran, orduan bururatzen zelarik epea, ez zen bertze proposamenik izan.

Zer erran nahi zuen horrek? Denek ezagutzen zituztela Miren Azkateren kalitateak eta gutarteko nehor ez zela menturatu, zilegi izanikan ere, bertze norbaiten proposatzea. Zer aitorten ederra, jakinik 22 bozkatzaitelarik 20 ek haren alde eman dutela boza.

Ez naiz orai sartuko laudorioetan. Nahi nuke erran, halere, eta bertze batek nik baino hobeki eginen du, euskaltzale suhar eta jakintsun bat hautatu dugula. Unibertsitateko istudioak bururatu -eta, Estatu Batuetan segitu ditu eta 1988-ko maiatzean “Hitz konposatuak euskaraz” izeneko tesia irakurtu du, epai mahaiak aho batez “Apto cum laude” emaiten ziolarik. Utziz alde batera idatzi dituen artikulua erranen dut ere langile baliosa dela Miren Azkarate, bai Gramatika batzordean, bai izendatu berri den Hiztegi batuko batzordean, bai ere Lexiko Erizpideen Finkapenerako batzordean, batzorde honen arduradun delarik. Horiek dira egiazko tituluak, horiek dira benetako merezimenduak. Anderea dela bestalde? Hainbat hobe!

102 urteko aitasoa joan zaigu, 37 urteko anderea etortzen zaigu. Euskaltzain berriari ongi etorri kartsua eginen diogu eta zorionak eskainiko, bi aldiz zorionak, lehenik bere sarrera mintzaldiarengatik eta egun, hain zuzen, azaroaren 27a izanez, betetzen dituelakotz 37 urte.

MIREN AZKARATE VILLAR ANDEREAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Egoitza, 1992.11.27

Miren Azkarate Villar

AGUR-HITZAK

Euskaltzainburu, euskaltzain,
agintari, familiako eta lagunok,

Euskaltzain hautatu ninduten une beretik elkarrizketa eske inguratu zaizkidan guztiek bi galdera hauek egin dizkidate: zer sentitzen da Euskaltzaindian sartzen den lehen emakumea izatean eta, horren ondoan, zer sentitzen da Joxe Migel Barandiaranen lekua hartzean? Hainbeste bider entzun ondoren uste dut bi ezaugarri horiek —lehen emakumea eta on Joxe Migel Barandiaranen ondorengoa izateak— markatuko dutela nire euskaltzain-izaera. Hala ere halabeharrezkoak dira biak. Lehen emakumea izateaz, norbait izan behar lehena eta neu suertatu naizela esango nuke. Gizartea bera aldatu da; orain 50 urte eta geroago ere ezinezko zena —eta ez emakumeak gizonetzkoak baino jakituria urriagokoak zirelako—, gaur eragozpenik gabe onartzen da, ustez eta hitzez behintzat. Eta honek gauza bakarra adierazten du: ez naizela ni aurretik izan ditudan emakumeak baino ez azkarrago, ez jakintsuago eta ez meritu handiagoa. Lehen ere izan ditugu Catalina Elizegi bezalako emakume teatrogileak (1), Julene Azpeitia bezalako kazetari, ipuin- eta saiogile izateaz gain gaur esango genukeen bezala euskararen pedagogiaz kezkatuak (2) (eta gaur halako garrantzia ematen zaion “curriculum” eta merituak aipatze-

(1) Donostian 1889an jaiotako eta Lizarran 1963an hil arte, irakasle-ikasketak egin eta *Garbiñe* (1916), *Loreti* (1918), *Yatsu* (1934) eta argitaragarriak *Catalina de Erauso* utzi ziguna.

(2) Ipuinak: «Euli baten edestia» (1933), «Goizeko izarra» (1959) eta «Auntza Baratzan» (1960), *Amandriaren altzoan* ipuin-bilduma (1961)... Bestelakoak: «Osasuna, merketza ta yanaritza» (1935), *Umien adizkidea* (umeei euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko metodoa) (1961), «Odolak odolari dei», «Martxela» bi kontakizun labur (1961), [«Odolak odolari dei», «Martxela» bi kontakizun labur (1969)], «Krabeliñ gorriak» saioa (1970)... Ikus Añamendi argitaletxearen *Literatura* III, 527-528. orrialdeak.

kotan, ez dira makalak, emakume honenak); Tene Mugica bezalako olerki-eta antzerkigileak (3)... Zerrenda osatzen jarrai genezake Rosa de Bustinza eta Mayi Ariztia-ren ipuin eta kontakizun laburrak, Concepción Unzueta, “Unzueta’tar Sorne”-ren olerkiak aipatuaz, edo Madeleine Jaurguiberry, antzerkigile, kazetari eta euskara irakasteko metodo baten egilearen lana. Adinean aurrera joan arren oraindik bizirik ditugunen artean, ezin ahaztu M.^a Dolores Agirrek euskal antzerkigintzaren alde egindako lan erraldoia. Merituak bai ugari guztiek, baina garaia ez izan egokia. Nik alde izan dudana, haiek zeharo kontra. Hara nola ikusten dudan lehen emakumea izatearen kontu hori.

Eta zer esan Joxe Migel Barandiaranen ondorengo izateaz? Gogoeta asko egin daitezke horren inguruan ere; bi hari-muturri heldu nahi nieke nik. Batetik, gauza jakina da euskaltzain bat hiltzean, berria ez dutela hautatzen haren iker-lerroen arabera; filologoaren hutsunea ez du nahitaez beste filologo batek bete behar, ez eta ere nobelagilea beste nobelagile batek ordezkatu behar. Bestalde, euskaltzain-“kargua” ez da inoren testamentu edo hilburukoan sartzen, ez dago euskaltzain baten esku bera ez denean ordezkoa nor izango den izendatu edo erabakitzea. Ez dago, beraz, euskaltzain zenduaren eta berriaren arteko lokaririk, ez behintzat euskaltzain izateak berak dakarrena baino areagorik. Halabeharrak, zoriak erabakitzen du azken batean noren lekua hartzen duzun. Hortaz, on Jose Migel Barandiaranen jarlekuan esertzea ez diot inongo merito bereziri zor; hala gertatu da.

Eta bestetik, nola har dezaket nik Barandiaranen lekua? Halako pertsonen uzten duten hutsunea bete ezinezkoa izaten da. Zientzia jakin batean egin duten lanari jarraipena eman dakioko horretarako ikertzaile-talde egokiak sortzen diren neurrian (eta, niri dagokidanez, ez historiaurreaz ez etnologiaz arduratzen ez naizenez, ezin on Joxemiel-en ondorengo izan maila horretan ere). Baina duten jakintza-maila hutsa gaindituz herri baten “sinbolo bizi” bihurtu badira, alderdi hori ordezkazina izan ohi da. Horrexegatik dakigu guztiok “euskal kulturaren aitagoi, patriarka” berria aurkitzea zein zaila izango zaigun.

Izan ere, berak eman digu geure euskal nortasunaren zati handi bat, berari esker ezagutzen ditugu geure historiaren sustraiak. Berari zor diogu, hitz batean, euskal historiaurrearen ezagutza. 1889.ko azken egunean, abenduaren 31.an, Ataunen jaio eta 1991.ko abenduaren 21.ean, 102 urte betetzeko hamar egun baino falta ez zirenean, herri berean hil zen arte, Euskal Herriko lehen gizona eta beronen ingurune eta bizimo-

(3) Antzerki-lanen artean *Gogo oñazeak*, *Gogo negarra*, *Gabon* eta *Juan Joxe* utzi zizkigun. Poemak, berriz, *Gure Herria* aldizkarian argitaratuez gain, *Idazki ta olerki* liburua (1923) osatzen dutenak.

dua izan zuen ikergai. Horretara nola iritsi zen eta bizitzan zehar nolako gorabeherak izan zituen ere ongi dakigu Luis Barandiaran Irizar, bere ilobak eginiko biografiari esker: umetan estudiante arlote samarra izan omen zen mutikoa —ondoegi ulertzen ez zuen “erदारan” emandako eskolak baino mendi-bidexketan ibiltzea nahiago— 1904.an Baliarraingo “Seminario”ra joan zen. Baita Manuel Lekuona ere hamar egun beranduago; mende honetan Euskal Herriak eta euskarak izan dituen jakintsu-rik handienetakoez gazte-gaztetatik ezagutzen zuten, beraz, elkar. Baliarraindik, Gasteizko apaiztegira 1906.an, ondorengo 30 urteak han emanik. Fisika-laboregiko arduradun izendatzearekin batera hasi zen atzerriko hizkuntzak ikasten (alemana, frantsesa eta ingelesa menderatzera iritsiz). Erabakigarria, 1913.an Leipzig-en egin zuen egonaldia izan zen, Wilhelm Wundt irakasleak herrien psikologiari emandako ikastaroak eraman zuen eta Euskal Herriko kulturaz arduratzera. Izan ere, kristau-erlijioan sakondu nahiak eraman zuen Alemaniara erlijioen historia sakontzera, eta hortik sortu herrien izaera ikertzeko gogo. Zein, ordea, bere herria baino gertuagorik eta egokiagorik? Eta, jakina, Euskal Herriaren izaeraren hariari jarraiki hasi orduko topo egin zuen gure historiaurrearekin. Berak zioen bezala, etnologiak behartu zuen arkeologiari arduratzera. Apaiz-ikasketak amaitu orduko hasi zen lehen eskabazioak egiten. Aralarren aurkitutako triku-harriei esker Arantzadi eta Eguren ezagutu eta lanari gogor ekin zion hirukotea osatu zuten; hogeitertan zehar euskal lurra arakatuaz herri honen historiaurrea ezagutarazi zuen hirukotea. 1918.an Euskal Ikaskuntzen I Kongresuan, Oñatin, parte hartu zuen eta hiru urte beranduago, 1921.ean, *Eusko Folklore* elkarte sortu.

Ondoko urteetan jaso zituen lehen izendapenak, 1927.an eta 1928.an, Academia de la Lengua Españolak “miembro correspondiente” izendatu baitzuen, eta Euskaltzaindiak, euskaltzain urgazle, hurrenez hurren.

Gasteizko apaiztegiko ardurek eta arkeologi eta etnologi ikerketek betetzen zuten egunen gorpila gerrak hautsi zuen. Iparraldera egin behar izan zuen, 17 urte iraungo zuen “erbesteratze” horretako urterik gehienak Saran emanaz. Garai horretarako kanpoan nolako ospea zuen adierazten dute New Yorkeko Columbia Unibertsitateak eta Manilakoak egin zizkieten eskaintzek bateko eta besteko irakasle izan zedin. Beste ezer baino lehen apaiz eta elizgizon zen Jose Migel Barandiaranek, ordea, nahiago izan zuen apaizgai errefuxiatuez arduratu, apezpikuak eskatu bezala. Ez zion haatik ikerlanari utzi. 1938.an, Kopenhagen egin zen Antropologi eta Etnologi Zientzien Nazioarteko Kongresuan hitz egin zuen. 1941.ean Frankfurt-eko Unibertsitateko Forschungsinstitut für Kulturmorphologie erakundetik hango argitalpenetan laguntzeko deia hartu zuen eta urte berean “Las cavernas en la Mitología Vasca” lana alemanera itzuli eta *Paideuma* aldizkarian argitaratu zioten. 1942.an, berriz, Baionako Société des Sciences, Lettres et Arts-eko bazkide izendatu

zuten. Hurrengo urteetan, Londresen, Oxford-en, Parisen, Brusselan... izan zen kongresuetan parte hartu edo hitzaldiak ematen. Aldi berean *Ikuska* institutua eta izen bereko aldizkaria sortu zituen 1946.an; urtebete beranduago, 1947.an eratu berria zen *Eusko Ikaskuntza*-ko lehendakari egin zuten.

1953.an itzuli eta Antonio Tovar-en bitartekotzaz Salamankako Unibertsitateko Manuel Larramendi Katedraz arduratu zen. Ondoko urteetan hasi zen lehen omenaldiak jasotzen: “Academia Errante” zeritzanak eskainia 1962.an. Salamanka utzi eta 1964.an Nafarroako Unibertsitateara doa, hamazazpi urtez izanik han irakasle eta etnologi sailaren arduradun. Euskal Herrian zehar hamaika lekutan aurkituko dugu hizlari urte horietan. Ikerlanak ere bultzatu nahirik, Etniker taldea sortu zuen, ikertzaile handiek ohi duten bezala ondorengo eskola sortuz. 1970.etik aurrera omenaldiak etengabeak izan ziren, besteak beste Euskal Herriko Unibertsitateak, Madrideko Complutenseak eta Deustuko Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu zuten. Bere izena zeramaten lizeoa eta institutua ezagutu zituen, bai eta izen bereko Fundazioaren sorrera ere. Urrezko domina bat baino gehiago jaso ere bai: Arte Ederretakoa, Nafarroako, Arabako eta Gipuzkoako Foru Diputazioetakoa... Bere omenez egindako liburuak ere hor daude, hala nola Bizkaiko Foru Diputazioak, Aranzadi Taldeak edo Nafarroako Unibertsitateko Prehistori eta Arkeologi Mintegiak eskainiak.

Ohore horiek guztiek ez zuten, baina, bere izaera apala aldarazi. Hara zer idatzi zuen bere *Egunerokoa*-n 1965.eko apirilaren 14.an euskal apaizek prestatu zioten omenaldiaren berri eman ziotenean: “Ai, Joxemiel, Joxemiel! Nola ezaun dean zaartu aizela! Dijoanai urrezko jantzie”.

Argitalpenak ere ezin konta ahala ditu. “Obras Completas”, bere lanen bilduma osatzen duten XXII liburuki mardulak ikusi baino ez dago. Bi gai nagusi bereiziko nituzke lan horietan: historiaurreari dagozkionak eta euskaldunon izaera eta bizimoduari dagozkienak. Lehen sailean, hainbat eta hainbat aztarnategi, triku-harri, leize-zulo etabarren azterketak ditugu (hala nola Aralar, Aizkorri, Urbasa, Auritz, Kalamua, Basagain, Santimamiñe, Lumentxa, Bolin-Koba, Ekain, Leze-txiki, Aitzbitarte, etabarretakoak). Bigarren sailean, euskal ohiturak, mitoak, euskal etxea... hitz batean euskal kulturari dagozkion alderdiak ikertzen dituztenak. Iker-lerroak horiek izanik, ez da zalantzarik historiaurreari, etnologiarari eta etnografilarari izan zela Joxe Migel Barandiaran.

Baina, zergatik euskaltzain? “Euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker erakutsiz eta gerokoen pizgarri” esaten da euskaltzain izendatzen zaituztenean. Zer da euskararen alde egin zuena? Hau izan daiteke nire iritziz gehiegi azpimarratu ez den Barandiaranen alderdia: Jose Migel Barandiaran euskaltzainarena. Eta horixe da, hain zuzen, hitzaldi

honen gaitzat hartu dudana, neure modutara omenaldi xume bat eskaini nahian. Izan ere, behin baino gehiagotan esan da babesa, itzala emango zioten euskaltzainak izendatzera jo zuela Euskaltzaindiak 1960. inguruko urte larri haietan. Hori izan daiteke arrazoietakoa bat. Hala ulertuko zuen Barandiaranek berak ere, ez baitzuen bileretan parte hartzen (izendatu zutenetik eta 1971.a arte hiru batzar-agiritan bakarrik ageri da bere izena bilduen artean). Batasunaren lehen urratsak eman zirenean ere bere betiko gaiak aztertzen jarraitu zuen hizkuntza-gaietan sartu gabe. Hala aitortzen du berak 1965.eko abuztuaren 27.ko bileran aho batez euskaltzain oso egin zutela adierazten zion eskutitzari erantzunez, honakoa idatzi zuenean: «Jakin det ere euskaltzain oso izendatu nauzutela. Eske-rrak damazkitzuet eta gogo onez zuekin izango nauzute, naiz eta jakin ez naizela asko gauza ezertarako». Alde horretatik egia da, ez zen izan “euskaltzain” eragilea, Akademiaren ikuspuntutik.

Hori al zuen, baina, meritu bakarra euskaltzain izateko, erakundeari babesa ematea? Horregatik proposatu al zuten Irigaray, Lafitte, Mitxelena eta San Martinek euskaltzain oso izan zedin? Ezetz uste dut. Euskaltzaindiaren 1928.ko urriaren 25.eko bilerako aktan «Jose Migel Barandiaran jauna, beronek egin dituen euskal-folklore lanagatik urgazle izendatu degu» (*Euskera* 1930) irakurtzen badugu ere, euskararen alde, hizkuntzaren beraren alde ere lan handia egin zuela iruditzen zait, alderdi batetik baino gehiagotatik gainera. Hiru modutako ekarpenak bereiziko nituzke nik: Barandiaranek berak euskaraz idatzi zituen testuak, besteren ahotik jasoak, eta, azkenik, euskal hizkuntzaren gainean eta beronen defentsan agertu zituen iritziak. Dena dela, ez dut puntu hauen ikerketa sakon eta osorik egingo. Aitzitik, ondoko lanei bide egin nahiko liekete gaurko lerro hauek.

Euskaraz idatzitakoen artean modu guztietakoak ditugu:

a) Ikerlanak: “Eusko-Mitologia”, Euskaltzaindiak eraendutako “Lenengo Euskalegunetako itzaldiak”, Durangon, 1921.ko garrilaren 4-8 bitartean (T. V., 195-212).

Euskalerriko Leen-gizona 1934.an Euskaltzaleak-en ardurapean argitaratua, gero 1972.an Lur argitaletxeak berriro argitaratu zuena, Xabier Kintanak prestaturiko hitz-zerrendaz osaturik.

«Paleolithos-aroa», 1942.an *Aintzina* aldizkarian argitaratua.

«Sorgiñaren txabola» *Ikuska* (Giza-Ikaskuntza) 1, Sara, 1946 (idazlan laburra).

«Euskalerriko Leen-gizakien eta ireluen bizilekuari buruz ikasgai eta esaunda batzuek», *Munibe*, 3-4, 1980.

«Euskalerriko illarri-biribillak. Estelas discoideas del País Vasco», *Obras Completas*, XVIII, 1981.

«Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen erabiltzen ditugunak eta hiztegiatan, batez ere Azkuenean, ageri ez diranak», Euskaltzaindiak Lafitte-ri omenez eskaini zion *Iker 2* liburuan argitaratua 1983.an. Eta hor Barandiaran hitzez arduratua deskubritzen dugu, bere inguruko hitz-altxorra bildu eta 15 orrialdeko “hiztegitxo” osatu zuena. Bestalde, niri behintzat, Mitxelenaren harako «Apostillas de un reñteriano» hura, gogorazi dit, Lezoko lexikoi edo hitz-bilduma bat osatu nahian eskaini zuen zerrenda, Errenderiako hizkeran berak txikitari ikasitako hitzak jasoaz (4).

«Olentzaro eta bere adredia», bere lan osoen bildumako azken liburukian 1984.an argitaratua (*Obras Completas*, XXII, 263-279).



Miren Azkarate, senarra eta alaba biak.

(4) *Euskera* VII, 1962, 54-58 or. (*Sobre historia de la lengua vasca I*, Anejos del ASJU 10, 423-427).

b) Hitzaldiak: «Saratarrak bi hitz» (Sara'ko Errepublika ospatzeko 1948.an saratarrak egin zuten jaiaren erranak).

«Axular'en itzala» 1956.ko buruilararen 28an Parisko Sorbonan egin zuen hitzaldiaren laburpena, urte batzuk beranduago, 1974.an, *Fontes* aldizkarian argitaratuko zuen «Axularren argia eta itzala»ren oinarri dena. Aipagarria derizkiot artikulu honi, Joxe Migel Barandiaranek bere-berea zuen gaiaren ikuspegitik aztertzen baitu Axularren testua; hau da, bizieraz (jan-edanez, jantzi, etxe, tresna, nekazaritza, arrantza eta bestez) zer dioen bilduaz. Hitz batean, Ataungo maisuak Sarako (Urdazubiko nahia-go bada) etnologiarikidea aurkezten digu.

«Axular'en eginkizunak eta Axular'en izena» 1956ko irailaren 16an Arantzazuko Euskaltzaleen Biltzarrean irakurria eta urte bereko *Euskera*-n argitaratua.

«Lekuona'tar Manuel'i buruz itz bi», Tolosan, 1977.ko abenduaren 28.an lagun zaharrentzat omenez esanak.

«“Eusko Ikaskuntza”ren kondaira laburra», Oñatin 1978.ko irailaren 17.an irakurria.

«Aralar-mendi esaundaz jantzia» 1979.ko urtarrilaren 20.an Tolosan emandako hitzaldia.

«Euskal-sinismen eta esaunda batzuek bertako bizikerai buruz», Donostiako Filosofi eta Hezkuntz Zientzietako Fakultatean 1981.eko maiatzaren 11.an egindako hitzaldia.

«Iparragirre (Jose Mari) euskaldun ospetsuaren herri-minak» 1981.eko ekainaren 13.an *Intxixu* taldearentzat egina.

EHU-k 1982.an antolatutako I Udako Ikastaldietako sarrera hitzaldia.

«Harriak aldaratzat, harri-gizakitzat, hilarriztat eta oparitzat», D. Ignacio Tellechea Idigoras'en omen-liburuan argitaratua 1983.an.

c) Besteren idatziei eginiko hitzaurreak: Juan Garmendia Larrañagaren (1970) *Euskal esku-langintza*, Jose Ramon Erauskin Lujanbioren (1975) *Aien Garaia*, Fermin Leizaolaren (1977) *Euskalerriko Artzaiak* eta Antonio Beristainen (1983) *Desbideraketa, bazterketa eta gizartekontrola* liburuei egin zizkienak.

d) Azken urteetan, aldizkari eta egunkarietan idatzi zituenak.

Testu hauek aztertuaz, argi ikusten da nola aldatu zen Barandiaranen euskara garaiaren eta inguruaren eraginez. Bere-berea zuen Ataungo euskara ez zen aldatu, jakina, baina bai bere idatzietan ageri dena. Horrela, gerraurreko lanetan, bizkaieraren eragin txiki batzuek gora behe-

ra (5) batipat gipuzkerazko lexikoa eta joskera ageri dira. Hala ere badu garai hartako lexiko “garbizalea”ren aldeko joera, *Euskalerriko leen-gizona* liburuan, nahiko nabarmena dena:

aldizkingi, erri-jakintza edo Folklore, edesti, edestu, erlijio edo uskurtza, margoztu, txadon, basatxauno, egurasti, gaudi, idazkun...

Honek erakusten digu Barandiaranen euskararekiko kezka, etxeko hizkeratik abiatuz (6), garaiko euskararen alfabetatu eta zientzi gai batez —prehistoriaz edo edestiauurreaz berak esango lukeen bezala— liburu oso bat idazteko gauza izan zen eta.

Iparraldean igaro zituen urteetako testuetan nabarmena da Barandiaranen ahalegina inguru haietako euskara erabiltzeko. Horrela, 1942.ko «Paleolithos-aroa» artikuluan (7):

erran, badire, ziren, iize, izigarri, bertzela, Eskualherria

bere euskalkiko ez zituenak irakurtzen ditugu. Ahalegina askoz handiagoa da bertakoei zuzendutako «Saratari hitz bi» hitzalditxoan. Nork esan 1948.ko lerro hauek:

«Orai duela bortzeun urte baziren Sara'n 83 etchejabe. Artzain-mutilak geiago naski.

Duela laueun urte, 400 deitura Axular erretorak aipha zituen Sara'n. Horietarik 34 bakarrik orai ageri; bertzeak gan ziren. Norat? Irietarat, Ameriketarat... Horien orde 200 deitura berri sartu dire Sara'n, naparrak ainitz» (*Obras Completas*, VI, 138).

eta 1949.ko beste labur hauek luma beretik sortuak direnik?:

«Urte ontan 281 oturdu eman zeau, etxera etoi zaiutzan aixkide eta arrotzai. Ainbeste baitittuk beste aldeti igeska datoztenak!» (*Egunerokoa*, 1949.ko abenduaren 31koa).

(5) “Egiaz indartzeko lain indar eta agiririk izan ez dute” (*Euskalerriko Leen-gizona*, 26).

“Egurasti otza gura dute” (id., 40).

Ez du baina beti asmatzen bizkaierazko forma zuzen erabiltzen. Halakoak dira -gaz eta -z atzizkien nahasketa erakusten duten ondoko adibideak:

“Sorgiñ, lamiñ eta intxixuagaz gauza asko esan litezke” («Eusko-Mitologia» *Obras Completas* V, 205).

«bere ezkontzagaz galde egin» («Euskalerriko illarri-biribilak» *Obras Completas* XVIII, 28).

«Liginaga'ko bizikeragaz auxe idatzi nuen» (id., 28).

(6) Deigarri gertatzen dira “Eusko Mitologia” 1921.eko lehen artikulua hartan ahozko formatik hurbil dauden *Egoarri*, *egoaldi* idazkerak.

(7) *Obras Completas* XII, 455.

Jaioterrira itzuli ondoren ere 1956.ko irailaren 28.an Parisen egin zuen hitzaldian, «Axular'en itzala»z ari denez, *toki untan, eskualdun, bederen, herri xoragarri untan, bertze, erran, zenbeit* etab. aurkitzea ez da harritzekoa. Oro har Iparraldeko euskalkien eraginak 1960.tik aurrera ere iraun zuen. Adibidez, «Euskalerriko illarri-biribillak» (1981) idazlanetik harturiko hauek aipa ditzaket:

eginen omen dute, ustez eta eriotza laburtuko den ala, oraino, urteen buru...

Bada, ordea, hasieratik azkenera arte aldatzen ez den zerbait, euskal egitura jatorren erabilera. Perpaus osagarri edo konpletiboen adibide batzuk aipatu nahi ditut bereziki, tradiziozko egitura jatorrak berreskuratzeko premia gorria baitugu gaur (8):

“Gure mendietan urbilduko osin batzuek badira. Olakuak geienetan ondorik ez dutela eta ez azi eta ez txikitu egiten dirala askotan entzun izan degu” («Eusko-Mitologia», 200).

“Ildakoak beste munduan janari, soñeko eta izkillu bearra izango zuten uste eta sinismena bazuten nunbait antziñako eusko-jentillak” («Eusko-Mitologia», 205).

“Beraren gana izkutuko gauzen batzuek jakiteko eta etorkizuna azaltzeko lenago joaten ziran entzutea oraindik bada” («Eusko-Mitologia», 210).

«orregatik toki ari *Traikarlepo* izena ezarri ziotela nago» («Agerketa berriak» *Obras Completas*, XII, 361).

«azken-erabakiak iritxiko ditugun ustetan» (ELG, 10).

Eta Barandiaranen joskeraz ari garenez, bada beste alderdi aipagarri bat: itzultzailearena, alegia. Izan ere behin baino gehiagotan berak prestatu zituen lan beraren euskal eta erdal testuak. Hala gertatu zen *Euskalerriko leen-gizona*, liburu entzutetsuarekin ere. Badakit itzulpengintzaren teoria zenbat landu den eta nolako aurrerapausoak eman diren alor horretan; ez dut zalantzarik, gaurko ikuspuntutik kritika bat baino gehiago egin dakiokeela orduko saioari. Eta hala ere

«donde había luz natural y estaba asegurada la circulación y renovación del aire»

(8) Baina honen ondoan *-lazko* ere askotan ageri da:

“ildakorik agertu diralazko entzuteak sarritan jakiten ditugu” («Eusko-Mitologia» 205).

“antziñako etxe, eliz, eta ermittak jentillak egindakoak diralazko entzutea ez da oraindik galdu” («Eusko-Mitologia» 207).

itzultzeko

«egun-argia sartzeko eta aizea berritzeko toki arek egokitasun ohea bai-zuan»

edo erdaraz

«Tras una época de florecimiento —siglo XVII— ha venido su decadencia, hasta el punto de que a finales del siglo pasado nadie colocaba una estela discoidal sobre su tumba»

idatzi zuena, euskaraz beste modu honetara

«illarri biribillen eraigintzak ziñezko igoaldia izan zuen XVII mendean. Geroztik asi zan bere makurraldi eta XIX mendea azkentzean iñork etzituen illarri oiek eraikitzen»

emateko joera, hau da, erdal testuaren morrontza itxua alde batera utziaz erdarazkoak esaten duena euskaraz “pentsatu” eta idazteko erakusten duen joerak gaurkotasun osoa du.

Baina Joxe Migel Barandiaran euskal idazlearen alderdiren bat azpimarratzekotan nik neuk terminologo edo nahiago bada terminogilearena aukeratuko nuke (eta ez dut uste aukera honek zuetako inor harrituko duenik). Nolako hitz tekniko sorta utzi digun, garaiazen arabera moldatuak, noski! Gaur bezalaxe, eratorpena eta hitz-elkarketara jo zuen gehienetan behar zituen terminoak eratzeko. Hemen ere, garaiko filosofiaren arabera jokatu zuela esan daiteke, maileguei ihes eginez eta euskal hitzen altxorretik sortuaz hitz teknikoak. Horietatik batzuk geratu zaizkigu, beste batzuk “garaikoegi” iruditu eta beste bide batetik jo da azken urteetan. Barandiaranek berak ere *uskurtza* edo *gogolantze* laster baztertu zituen, *erlijio* eta *kultura* erabiliaz gerra ondoren. Beste batzuk, ostera, *edesti*, *edestiaurrea*, esaterako, azken testuetaraino gorde zituen, aldizka *historia* eta *prehistoria* ere tartekatuz. Bi iturritatik hautatu ditut ondoko adibideak, *Euskalerriko leen-gizona* liburutik:

lurgorri ‘ocre’, argorri ‘hematites’, lurmalla ‘estrato’, erti izapentsu ‘arte realista’, arkaxkar edo mikrolitoak, opalitz ‘dedicatoria’, arrikadi ‘pedregal’, abereki, katuki ‘felino’, zanpagai ‘compresores’, auntuzaida ‘cérvido’, urraidagarai ‘edad de los metales’ (baita ‘eneolitos’ eta ‘megalitos’ ere), aragizale ‘carnicero’, adarbakar ‘rinoceronte’, arrilora ‘cuenta de cristal’, burdinorri ‘bronce’, arlandu-garaia ‘paleolítico’, marrezlan ‘pintura’, marrez-apainkera ‘grabado’, arri-moldakera ‘escultura’, gogolantze ‘cultura’, ildo eta margo-apainkera ‘grabado y pintura’, giza-antzeko ‘antropomórfico’, etab.

Beste sortatxoa «Euskalerriko illarri-biribillak» lanetik hartua da:

laburtitz ‘monograma’, elizbular ‘ábside’, artzai-larraldazale ‘pastor transhumante’, ostri-gauzen iduriak ‘figuras astrales’, gurutze besorbediña ‘cruz griega’, [gurutze] birgurutzatua ‘cruz recruzada’, [gurutze] florentztua ‘cruz florenzada’, [gurutze] uztargibelartua ‘cruz flordelisada’...

Nolanahi den, gaur ere euskara bizitzako alor guztietarako egokitu nahian gabiltzan honetan, benetan interesgarria da orain 60 urte nondik jo zuten eta gaur nondik nora gabiltzan alderatzea. Honako alderdi hauek aipatuko nituzke nik, beste batzuen artean:

a) *-ari* atzizkiaren erabilera lanbide jakin bateko gizon-emakumeak izendatzeko; honekin batera, *-lari* aldaeraren nagusitasuna. Hain zuzen, azken urteotan ezagutu dugun jokabide bera:

arkeologari, geologari, edestilari, ertilari ‘artista’ (Barandiaranek eta beste hainbatek erabili zutena), ezpatalari ‘gladiador’, edesti-aurrelari (edesti-aurre ‘prehistoria’tik abiatuz), ikaslari (Eusko-Mitologia), gualari (Eusko-Mitologia) (9), meteorolojilari (*Egunerokoa*, 1928, irailak 16), epailari (*Egunerokoa*, 1939, abenduak 31), etnikerlari («Euskal Mitoezaz»).

Hor badugu, gainera, gutxienez saio bikoitza. Batetik *arkeologo*, *geologo* maileguetatik abiatuz *-ari* atzizkia eranstea: bestetik, *meteorolojia* zientzia-izenetik abiatuz, horretan ari denaren izena sortzea. Azkenik, hor dugu oraindik eztabaidagai dugun auzia ere, aditzoinari erantsirik *ikaslari* edo *epailari* -k adierazten dutena.

b) *-tze* atzizkiaren aldeko joera aditz-izenetan zenbaitetan, *-keta* -ren aldekoak bestetan, baina modu guztietako atzizki eta zalantzak ageri dira (gaur bezalaxe):

erromatze-aldia ‘época de romanización’, sortze eta aurrerape-nak, agerpen, ziñespen, gogo-lantze ‘cultura’, ikuste (“ilarriaren zenbait ikuste” = quelques esquisses de sa sepulture) (10).

jauresketa (*Euskalerriko illari-biribillak*, 78), astinketa ‘sacudida’ (*Eusk*, *illarri-biribillak*, 108), igarazketa ‘ritos de pasaje’ (id., 13).

(9) Baina gero *gudari Egunerokoa*-n 1928.ko irailaren 16.an.

(10) «Sorgiñaren txabola» *Obras Completas* XII, 113.



Ezkerretatik eskumatarra: J. M. Lekuona buruordea, Miren Azkarate euskaltzain berria 'diploma' jasotzen, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina eta Patxi Altuna euskaltzaina.

Eta horren ondoan:

agerkunda 'aparición', agerkera ('illarri biribillen agerkerak ezagun dire') eta agerketa ('ildakoen agerketak era askotakoak izan oi dira').

hirurak artikulu berean (11), edo *zabalketalzabalkunde* bikotea:

«España'n eta Galie'tan erromatarrek beren zabalketai ekin zioten ezkerre, Eusko-pirene'en ingurumaiak bereala lateldunen bizikerara biurtzen asi ziran (...).

Zabalkunde onetarako guztiz egokiak gertatu zitzaizkiten erromatarrei berak Euskalerrria'n ebakitako bideak» (*Euskalerrriko leen-gizona*, 99).

Deigarri egiten da *-kunde*-ren aldaeratzat hartu behar den *-(k)unda* atzizkiaren erabilera.

erabilkunda ("umeen arteko jolas eta erabilkundak"), agerkunda, jakiunda, esaunda/esakunda...

(11) «Euskalerrriko illarri-biribillak. Estelas discoideak del País Vasco», *Obras Completas* XVIII.

c) Deigarria halaber gaur berritatzat dauzkagun hitzak eta joerak Barandiaranen testuetan dagoeneko aurkitzea: *gizaki* ‘ser humano’ aideran lehen testuetatik, eta horren ondoan *giza-* ‘humano’ adierazteko (*giza-enda*, *giza-itxurako*, etab.). Edo *-tegi* atzizkiaren erabilera, hitz berriak sortzeko ez ezik erdal maileguak “egokitze” ere; areago, *-tegi* eta *toki* –eratorpen eta hitz-elkarketaren arteko– zalatzak:

iltegi ‘cementerio’, urberotegi edo termak, aztarnategi («Paleolithos-aroa»)/azterren-toki, aztarnatoki (ELG) monastegi, santutegi (Egunerokoa, 1936 eta 1939).

d) Izenondo erlazionaldun izen-sintagmen ordain, hitz elkartua edo izenlaguna baliatu ohi du:

soñaren apaingarriak ‘adornos corporales’, deabru-agurtzalana ‘culo demoniaco’, erti edo uskurtz-marrestura ‘representaciones artístico-religiosas’, tresna-ertia ‘arte mobiliar’ (12).

Beste batzuetan gaur erabiltzen ditugunetatik zertxobait desberdinak dira Barandiaranen lanetan aurkituko ditugun formak:

aurdegi: gaur bertan aurdegi bat antolatatu bear dute an (Egunerokoa, 1937).

Inoiz dirudienez berak bakarrik erabili dituen hitzak ere aurki ditzakegu: *ostri*, *norki* ‘persona’, *azken-esoña* ‘referencia final’, edo *adreri(a)* ‘tribu’ bezalakoak.

Dena den, ez nuke Joxe Migel Barandiaranen euskal idazlanen aipamen hau bukatu nahi *Egunerokoa* aipatu gabe. Bere ilobak idatzitako Biografian, tarteka-tarteka, *Eguneroko* horretako pasarteak aurki ditzakegu; egia esan, pasarte solteen orde, hasi eta bukatu osorik irakurtzeko gogo bizia sentitzen da. Zenbat eta zenbat kontu ez ote dago hor urte luze horietako gora-beherez! Baina lotu nakion hizkuntzaren gaiari, hor baitaude bildurik Joxe Migel Barandiaranen hizkuntza-erregistro guztiak. Alde batetik, aurrerago aipatuko dudan pasarte luze batean ageri den bezala, hitanoz idatzitako zatiak ditugu, etxeko hizkeran kontatuak, beraz. Horien ondoan, askoz landuagoak. Lexikoa neurri hartuaz: *meteorojilari*, *aurdegi*, *ebakintza* edo *igaro-txartela* ‘salvoconducto’ modukoek erakusten digute berriro ere euskaldun alfabetatua, beretzat idatzi arren, euskara zainduan ari dena (13). Baina joskera desberdina da, askoz laburragoa, ia aditzik gabea askotan:

(12) Ohart gaitezen adibide hauetan bitxi egiten zaiguna ez dela egitura bera, garaiko ume diren *erti* edo *marrestura* baino.

(13) Hala ere *pintura*, *eskultura*, *prehistoria*, *erri-kultura*, *errefujiatu*, *organizazio* edo *pasaporte* idazten duena, *gogolantze*, *marrztura* etab. utziaz.

Gaur Saturrararen izan naiz. Beasain, Ordizia, Tolosa, Erretereri ta Oyarzunen burruka gogorak ari dirala, esan didate, Saturrarango ondartzan ia iñor ez. Itxaso ta udara-zaleak beren etxeetan gerragatik. ¡Au da ixiltasuna! Lekeitiora itzultzerakoan, Aldanondo ta biok bidari bakarrak autobusean. Ondarrutik Bilbora iñor ez. Udarako jai batean ez det sekula olako ixiltasunik nabaitu (1936, uztailak 31).

Ez da ordea hemen amaitzen Barandiaranen ekarria. Erdaraz (espainolez, frantsesez zein beste hizkuntzetan) idatzi zituen testuetan ere euskarari buruzko informazio handia ageri da. Toponimoak eta bestelako lexikoa bereiziko nituzke nik hor. Toponimoei dagokienez, batzuetan:

a) Leku-izena bakarrik ematen du: edozein artikulua hartzen dela, mendi, zelai, borda... izenez josia dago. Euskal Herri osoan zehar ibili zela kontuan izanik, Euskal Herriko toponimia ezagutzeko berebiziko garrantzia dute artikulua eta lan hauek, bere ilobak aitortzen duen bezala: «Norbaitek eusko-prehistoria ta etnografia ezezik, eusko-toponimia ta historia sakonki ezagutu nai baditu, D. Jose Migelek, kostata, egindako bildumara jo bearko du» (*Biografia*, 350. or.).

b) Beste batzuetan, leku-izen horien esanahia ere argitzen digu: erdaraz idazten duenean, askotan, euskal toponimo hutsa bildu beharrean, parentesi artean erdal baliokidea ezartzen du. Esaterako:

Oyanzelaiko-turzilo (cueva de la fuente de Oyanzelai) («Crónica de Prehistoria, Alduides», *Obras Completas* XII, 369).

Kutxaxarretago-egia (loma del viejo ataud) (id., 370).

El monte llamado «Gasteluko-atxa» (= peña del castillo) (*Obras Completas* XII, 331).

Collado de Pillotasoro (prado de pelota) (*Obras Completas* XII, 358).

Batzuetan bi interpretazio ere eskaintzen ditu:

«La cueva se llama Mariasulo bien porque se supone que en ella mora la divinidad o personaje mítico *Mari*, o bien porque se dice que en un manantial cercano brota el agua con intermitencias que responden a las mareas del vecino mar de Vizcaya» («Prehistoria de Vizcaya: 1/4 de siglo de investigaciones». *Obras Completa* XII, 141).

Areago, toponimoen sailkapena ere eskaini zigun, hala nola «Rapports entre la toponymie et l'archéologie au Pays Basque» izeneko arti-

kuluan(14): *etxe* izenaren gainean eraikiak Jentiletxeeta “maisons des gentils ou païens”, Jentiletxe, Mairutxe, Sorginetxe, Tartaloetxeeta; *baratz* oinarri dutenak, Jentilbaratz, Mairubaratz; *triku*, *trego*, *trika* ezezaguna dela aitortzen duenetik Trikuarri, tregoarri, Traikarri, Trikamuñaeta.

Edo «Toponymes inspirés par la mythologie basque» (15) izenekoan, *mari-*, *mairu-*tik sortutako Mariturri, Mariasulo, Mariyen-kobia, Marikutx, Mairuelexa, Morumendi, Marulanda, Murumendi, Morozillo, Miruilarieta, Mairubaratz... *Lami-*, *lamia-*, *lamin-*, *lamina-* oinarri duten Laminen-ziluak, Laminosin, Lamiarrieta, Lamiarriaga, Lamiategi, Lamiñerreak etab. luzea edo *sorgin-*, *aker-*, *sugaar-*, *basajaun-*, *tartalo-*, *jentil-*edo *pago-* izena lehen osagaitzat duten toponimoen zerrenda ematen digunean. Halaber *Eusko Lurra* (16) libururako idatzi zuen “Etnografia” atalean ageri dena.

c) Bestelako lexikoa: ez toponimiaz jabetzeko bakarrik, hainbat arlotako euskal lexikoaren ondarea ezagutzeko ere ia ezinbestekoa zaigu Barandiaranen lana. Adibide ederra da «Los diversos aspectos históricos de la cultura vasca» artikuluko (17) laborantzako lanabesen zerrenda:

«Tales son, por ejemplo: *laya* antes mencionada, *nabar* o cuchilla, la azada (*atxur*), la hoz (*igitai*), el trillo de varillas y el de dientes de sílex, el arado (*golde*), el trineo (*lera*), carro chillón (*gurdí*), yugo (*uztari*), collar (*ustai*), enderezador o palo perforado (*kabil*), depilador (*marruka*), hacha (*aisko*, *aizkur*, *aizkora*, *aixkol*), cuña (*ziri*), podadera (*aiotz*), cuchillo (*aizto*), azadilla (*jorrai*), aro (*uztai*), collar (*zuldai*), pala (*endai*), rueda (*liñai*), tranca (*atalai*), moledor (*arrabil*), raedera (*arrazki*), ancla (*arrankin*), eslabón (*arrat*), piedra de cocer (*txukunarri*), cincel (*zula-kaitz*), punzón (*ezen*), punto para remover piedras con ostras (*arrankol*), bumerang (*makil*, *karrota*), fisga (*arraingizi*), mayal (*irabiur*), pinzas (*sardaka*)».

Beste batzuetan botanika inguruko lexikoa da:

encina: arte; laurel: ereñotz; labiérnago: keretxu; rusco: erkatza; madroño: kupitz; zarzaparrilla: endollarra (18).

(14) Actas y Memorias del *Troisième Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie*, Bruxelles, 1949 (*Obras Completas* VI, 139-142).

(15) Actes et Mémoires du *Cinquième Congrès International de Sciences Onomastiques*. Volume II. Salamanca, 1958 (*Obras Completas* VI, 222-227).

(16) *Eusko Lurra. Geografía del País Vasco I*, 273-304, Donostia, Etor, 1974 (*Obras Completas* XXI, 69-89).

(17) IV Symposium de Prehistoria Peninsular. Pamplona, 1966 (*Obras Completas* VI, 257-270).

(18) «Exploración de la cueva de Urtiaga» (*Obras Completas* XII, 171-195).

Eta horrela orriak eta orriak beteko genituzke esukal bizierako alor desberdinetakoa lexikoa jasoaz (adibide ezin hobea da, esaterako, «Bosquejo etnográfico de Sara» lan luzean bildurik dauden guztiak, edari, neurri, garraiobide, jantzi, janari, jaiotza, ezkontza, heriotza... etabarren inguruko hitzak). Edo artikulua desberdinetan zehar bil daitekeen landare, belar... eta gainerako izenen bilduma:

zingiñarri, gaztiña-ikatz, iruntzpeko, atz (edo sarna) (gaitzen ize-nak), erramu, ereñotz, ideta, eia, sorgiñbelar (belar eta landareak).

Mundu hori ia ezagutu ere ez dugun kalekumeontzat ez da zerrenda makala! Izan ere etnografi galdekizunetarako prestatu zuen galde-zerrenda ikusi ondoren (19) nahi eta nahi ez egon behar lexiko-altxor hondargabea haren lanetan.

Gainera dialektologi mailako informazioa ere ematen digu han-hemenka, Osintxun *sorginbelar* deitzen diotena Ataunen *izurribelar* dela, esaterako (20); edo *eguzki* izenak honako aldaerak dituela: *ekhi* (Zaraitzu), *iguzki* (Irun), *iuzki* (Oiartzun), *eguzki* (Tolosa, Kortezubi), *euzki* (Elduaian), *eguski* (Laudio) eta *ilargi-k*, berriz, *ilazki* (Zaraitzu), *illargi* (Ataun), *iratar-gi* (Elorrio), *iretargi* (Laudio), *idetargi* (Errigoiti) (21).

d) Hitz elkartuen interpretazioa. Toponimoekin egiten duen bezala, erdal artikulua eta lanetan biltzen duen lexikoa ere itzuli eta ondorioz, azaldu egiten du askotan Barandiaranek. Eta hor hitz elkartu mordo polita eskaintzen digu (eta uste dut ez dudala esan beharrik zenbat erakartzen nauen mundu horrek). Adibide batzuk aipatzearren, hona «Bosquejo etnográfico de Sara, VI» ataleko:

iratzesega (guadaña para helecho), otasega (guadaña para argo-ma), gatzagi-ezpiritu 'espíritu del cuajo', maats-bihi 'grano de uva', piñuburu 'piña', gizabide 'justicia' (de *gizon* 'hombre' y *bide* 'camino'), eginbide 'obligación' (de *egin* 'hacer' y *bide* 'camino'), zuzenbide 'justicia' (de *zuzen* 'recto' y *bide* 'camino'), gatzelagunak 'compañeros de juventud', esposgambara 'cámara nupcial', esposmeza 'misa de boda', gizon-ahuko 'cortejo de hombres', gorputzgaileak 'conductores del cadáver', altxatoki 'sitio de levantamiento' [del cadáver], elizbide 'camino de iglesia', xorrotzarri (de xorrotzu 'afilarse' y arri 'piedra'), opotsarri (de opots 'tubo o vaso donde se guarda la piedra de afilar' y arri 'piedra')...

(19) *Obras Completas* VI, 361-393).

(20) «Contribución al estudio paletnológico del pueblo vasco. El magismo», Comunicación presentada en el Congreso de Bilbao de la Asociación Española para el Progreso de las Ciencias, 1919 (*Obras Completas* V, 213-247).

(21) «Folklore vasco. Necesidad de su estudio», *RIEV* XVI (*Obras Completas* V, 309-312).

Edo Sarako ohituren berri ematen duen VII atalean ageri den izen-goitien azalpena:

«Es frecuente hablar de gustos, de hábitos y de caracteres que distinguen a los pueblos y a sus habitantes y se señalan o califican a éstos mediante apodos. Así, de los de Ascaín se dice que son *zozo-moko* ‘pico de imbécil’; de los de St. Péee, *belaun-buru-andi* ‘los de grandes rodillas’; de los de Ainhoa, *saltsa-jale* ‘comilones de salsas’; de los de Souraide, *tipula-jale* ‘comilones de cebollas’; de los de Ezpeleta, *sisti-sasta* ‘punzantes’; de los de Sara, *mintzaile-ederrak* ‘parlantes hábiles’» (*Obras Completas* V, 124).

Hitz elkartuak interpretatzen zenbateraino zen zuhurra ikus daiteke Mitxelenak, *sugaar* izena dela eta, bere okerra aitortzen duenean. Izan ere, *Textos Arcaicos Vascos* liburuan zalantzan jarri zuen Barandiaranek hitz horri ematen zion azalpena. Hona zer dioen, ordea, handik urte batzuetara (22):

«A juzgar por paralelos vecinos que yo debería haber conocido y citado, no puede haber duda de que el análisis de Barandiarán es totalmente correcto: *sugaar* no puede ser más que ‘culebro’, lit. ‘serpiente macho’».

Joxe Migel Barandiaranen ekarpenaren bigarren alderdia, batez ere *Eusko-Folklore* aldizkarian jasotako ipuin, ele zahar, sinismen etabarrek osatzen dute. Etnologiaren ikuspegitik duten balioa inondik inora gutxietsi gabe, badago hor euskal dialektologiarako material eder askoa. Transkripzioa ez da, noski, fonetikariak egingo lukeena; areago, ez da pertsona baten kontakizuna zuzenean jaso ere, baizik Mitxelenak dioen bezala:

«irakurtzen hastea aski da ikusteko laburturik bildu zela luzarogo, behin batera eta behin bestera maiz aski, kontatu zitzaiena. Bururik onenaren jabe izanik ere, ezin daiteke horrela kontakizunaren haria baizik hartu, eta hariarekin batean kontakizunaren giltza diren hitz nagusiak. Horrezaz gainera, zenbait esaldi labor jasoko dira gehienez ere, bertsoaren antzeko laguntzarik ez badute» (23).

horrenbestez, ez da seguruenik egokiena gure euskalki eta azpieuskalkien azterketa fonetikoan murgildu nahi badugu (gaur egun gainera baditugu fonetika-laboratorioak eta nahiago izaten da zintetan jasotako ahotsa, ezen ez testu idatzia). Baina, hala ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko herri edo bailara gehienetako hizkerak digutu hor: Berastegi, Azkoitia, Kortezubi,

(22) «Toponimia, léxico y gramática», *FLV* 1971, III, 241-267.

(23) «Euskalkien ageriko aurpegia» *Sobre historia de la lengua vasca I*, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” 10, Donostia, 1988, 337.or.

Elantxobe, Ataun, Zegama, Laudio, Oiartzun, Legazpi, Mutriku, Elduaien, Idiazabal, Lekeitio, Elantxobe, Zestoa, Bermeo, Orozko, Amezketa, Zea-nuri, Muxika, Elorrio, Bidania, Oñati, Andoain eta beste herri batzuetako jendeak kontatuak, ahoskera ahalik zuzenen jaso nahi duen idazkeran emanak. Mereziko lukeela iruditzen zait orrialde horietako informazioa dialektologiaren ikuspuntutik aztertzea. Bilduma hain ugari eta aberatsa ez izan arren, gainerako euskalki eta azpieuskalkietako testuak ere ematen ditu: Uharte-hirin (Uhart-Mixen), Saran, Urepelen, Altzain, Ligin, Ahatsan, Ezpeletan, Zugarramurdin, Iturenen eta beste zenbait herritan biduak.

Badu gainera Amodiozko Kanten bilduma bat, Saran egon zen urteetan "bir-idatzia" berak esaten duen bezala *Obras Completas XXII* liburukian lehen aldiz argitaratua.

Eta hirugarrenik, Barandiaranen euskal hizkuntzaren aldeko defentsa sutsua azpimarratuko nuke. Beti hartu zuen euskara euskaldunon funtsezko ezaugarritzat eta hala beti aurkituko dugu hizkuntzari buruzko pasarteren bat euskaldunon izaera eta nortasuna aldarrikatzeko egin zituen lanetan, batez ere European zehar emandako txosten eta hitzaldietan. Nik esan dezakedan guztia baino askoz argigarriago dira, ordea, bere hitzak:

«El euskera como elemento de una etnia y expresión de una cultura» *El libro blanco del euskara*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1977, 304-315; gerraurrean idatzitakoa berriro jasoaz: «la lengua no sólo es instrumento natural por el que los individuos agrupados en sociedad se comunican entre sí, sino que es el archivo del saber popular donde se conserva gran parte del contenido espiritual de todo el grupo étnico a que pertenece. Por eso se ha dicho con razón que el lenguaje es la memoria de los pueblos [honeraino garai hartako hitzak]. A este propósito debemos recordar lo que decía Grentrup: «Si la lengua se halla de esta suerte ligada con el pueblo... no debe extrañarnos que las familias y los pueblos se insurreccionen y protesten contra la pérdida de la lengua materna; pues un grupo idiomáticamente aglutinado pierde en gran parte, tal vez totalmente, su unidad espiritual cuando se destruye el vínculo del lenguaje» (*Muttersprache und Religion*, Münster, 1932, 78 or.)».

Eta aurreraxeago:

«El vascuence no es hablado hoy por todos los habitantes de Euzkadi ni por todos los individuos de estirpe vasca; pero es un elemento característico, el distintivo de todo el grupo (...).

Es, pues, el euskara el más adecuado cauce del contenido de nuestra cultura tradicional. Tratar de imponer a ésta otros

moldes —otra lengua— fuera estorbar el normal desarrollo de nuestro pueblo y embarcarle en un curso regresivo».

Urte batzuk beranduago egin zioten elkarrizketa batean ere ideia bera adierazi zuen:

“Euskal nortasuna lehenengo hizkuntza da. Horrek adierazten du dela herri bat bere nortasuna duena. Hizkuntzarekin batera joaten da izakera eta hezikera, kultura” (Argia, 1989-IV-23).

Gure nortasunaren funtsezko ezaugarri horretaz baliatzeko dugun eskubideaz ere badu pasarte ohargarririk. Bereziki bat aipatu nahi dut, beretzat idatzitako *Egunerokoa*-n agertzeagatik indar berezia duela iruditzen zaidalako. 1938.an, maiatzaren azkenaldera, Budapesten Eukaristi-Batzarra izan zen. Han, euskal talde batek Pacelli kardenalari —Batzarrean Aita Santuaren ordezkari zenari— euskaraz hitz batzuk esateko eskatu zion, eta honek ezezkoa eman. Arrazoa: “euskotarrek ez dute herri bat osatzen”. Hara zer idatzi zuen gertakari hau zela eta bere *Egunerokoa*.

Au jokaera bitxie! Ez al gea gu, euskaldunok Pirineo-lurraldeen, Filipiñatan tagalook, Yugoslabiin Kroaak, Indian teluguuk eta Belgikan flamandarrak dien beziñ errialde? Bittarteen ook itz eññ al izen zoia denen aurren Jainkooi, bakoitzek bee izkuntzan, Budapest’eko billera ontan; Euskaldunok ordea ez. Beraz euskaldunok eziñ erabilli zeikeau euskerea —Jainkook eman diun alkarbide au— Elizeen Biltzar-nagusiittan gaiñetiko errialdeek bezela. Jainkoa gooratu nai ba-dek or, euskeraz ez baiño, beste izkuntza baten bidez eññ bearko dek. Elizeen izeneen edota Kristoren izeneen dabilzela dioten gixon ook Kristoongandi eta Elizati aldenduerazingo diia Euskalerrie. Bizi danak ikusiko dik.

Eta gaur bati baino gehiagori sinisgaitz gertatuko bazaio ere, jarrera honek ez zuen bere ustez inolako zerikusirik politikarekin. Oso argia da politika-kontuak baztertu eta bere herriaren izaeraren ikerketari lotu nahia adierazten duten *Egunerokoa*-ren gerra-urteetako pasarteetan:

«Ementxe naukazu Monastegi atsegin onetan [Belloc-en]. ¿Noiz arte? Ez dakit. Gazteizera joaterik, ez eta pentsatu ere orain-orain bezela. Ortaz gaiñera, Seminarioan ez nitekela sartu, esan didate. Ezin det sinistu: ez bait naiz politikan sartu sekula, ori zer zanik ere ez nekien da: nik egin dedana auxe izan da: beste errietako lagunekin batera, lenengo gizonaren historia, soziolojia ta errien sikolojia ikasten saiatu: ortarako, lan-toki bezela, jao nintzen eta bizi naizen errialdea aukeratu det eta lan orri eman dizkiot nere kemenak eta nere txanponak (*Egunerokoa* 1936).

«Batezere oso pozik nago iñungo alderdi politikoetan parte artu ez dedalako.

Euskalerrian egin det lana, an jaioa ta euskotarra naizelako. Nere erria maitatu det, baiño iñor zapuztu gabe. Beren aunditazuna besterik onartzen ez dutenentzat, Euskalerria ezagutu ta maitatzea “zatikeria” dan une ontan jaiu bait naiz, zoritxarrez. Orregatik bizi naiz erbestean. Ni bezelaxe beste asko ere; lojika gabe epaituak izan gera» (*Egunerokoa*, 1939.ko abenduaren 31.koa).

Euskalerraren etorkizunaz kezkatua, irtenbide bakarra ikusten zuen: haur eta gazteak euskaraz eskolatu eta ezinbestekoa zaigun goi-mailako kultura geure hizkuntzan jasotzeko aukera izatea. Behin baino gehiagotan hitz egin edo idatzi zuen gai honen ganean:

«1964'go Azaroon 21'n eune. Alde guztiittan —Euskal-erri'n— zalantza asko: euskerea eta euskal-ezikera galduko ote zaiutzak? Bide ortan zijoatzek (...) Beaz leengo izakerea juun zaiuk: lan berriik eta oitura berriik; irakaskuntza guztie erdaaz, euskerea baztartue. Gue izkuntzeeri irauaazteko bidea, ikasi bear deun guztie euskeraz ikastea oke. Ori, ordea, noiz eñ al izengo diau?».

«Lengua e instrucción.—Los naturales del pueblo hablan el vascuence; pero ahora se expresan también en castellano muchos niños y, sobre todo, niñas: sólo en castellano se imparte la enseñanza en las escuelas, procedimiento pedagógicamente absurdo que viene de lejos. No hay, pues, igualdad de oportunidades».

Como los modos de vida de la mayoría requieren hoy una formación escolar bastante amplia, es inevitable que el castellano empleado como único vehículo e instrumento de aculturación de la juventud sea pronto la única lengua hablada en el pueblo, si antes no llega una medida que imponga el vascuence como medio de expresión en todos los grados de la enseñanza» («Aspectos de la transición contemporánea de la cultura en San Gregorio de Ataun», II Congreso Nacional de Costumbres populares, Córdoba, 1971) (24).

Eta biografiaren azken orrialdeetan bere ilobak egindako galderei erantzuten ari dela, ondokoak irakurtzen ditugu:

—Nundik datoz euskera zaintzeko zailtasunak, eta euskera gorde ta indartzeko, zein irtenbide aukeratu?

(24) *Obras Completas* VI, 420 or.

— Sustraizko zailtasuna auxe da: gaur ikasketa guziak erderaz egiten dirala. Len ere bazan au, baiño gaur areago: goi-maillako kulturarik gabe, gaur ez bait dago zeregiñik eta ori lortzeko ez dago erdera beste biderik. Irtenbide bat eskatuko nuke nik: egokiera berdiñen bizi-legea ezarri dedilla. Au da: euskaldunak dana euskeraz ikasi aal izan dezala. Belgican bezela: an flamenkoak kultura lortu dezakete flamenkoz: edo Suizan bezela: eskualde bakoitzak bere izkuntza badu: frantsesa, alemana, italiarra, eta bakoitzak bere izkuntzan itzegin eta dana ikasten du» (*Biografia*, 476 or.).

Eta azken galdera bati:

— Zorioneko “eusko arazoa” dalata, zein alderdi azpimarraituko zenduke ta zein irtenbide eskeñi?

hauxe erantzun zion:

— “Eusko arazoa” auxe da: nola eutsi Euskalerrinari, eusko-etniari: bestela esanda: nola eutsi kultura jakin au duen talde oni. Irtenbide bat au litzake: irakasketa-mailla guzietan euskera jarri, bere kultura-gaiei begirunea gorde, eta bere burua zaintzeko bear dituen eskuarte egokien jabe izan. Bere buruaren jabe izan, eta bere kulturari eusteko bear diranen jabe ere bai. Lengo gizaldietan Furoekin gertatzen zan bezela» (*Biografia*, 477 or.).

Bera izan dugu ibilbide horren eredurik onena, alderdikeriak utzirik euskarari laguntzeko beti prest, euskalduna zela gora eta ozen esanik, mundu osoko jakintsuen begirunea lortu zuelako. Batzuek “kultura-hizkuntza” deitzen dituztenak (frantsesa, ingelesa, alemana...) ikasteaz gainera euskara ere besteak bezalaxe izan daitekeela “kultura-hizkuntza” erakutsi zigulako.

Agur eta ohore Joxe Migel Barandiaran euskaltzainari, «ez naizela asko gauza ezertarako» uste izan arren, euskaltzainari dagozkion euskararen “jagon-lanak” eta “ikerlanak” hain zintzo bete zituenari.

MIREN AZKATEREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Bilbo, 1992.11.27

Patxi Altuna

HARRERAKO ERANTZUNA

Euskaltzain lagun kideak
Agintari Jaunak
Jaun-andereak

Bizkaiko hiriburu noble Bilbo, Euskalerrri osoaren bihotz eta eragile izatera ekonomiaren eta industriaren munduan ez ezik, baita kulturaren alorrean eta, areago dena, euskal kulturarenean ere deitua den honek Euskaltzaindiari berriki, Euskadiko lehen lehendakari izanak Azkue jaunari aspaldi eginiko agintza beterik, dohan eman zion egoitza eder, berregin, dotore honetan egin du Miren Azkarate andere donostiarrak gaur lehen aldiz —lehenago beste inork ez, alegia— Euskaltzaindian sartzea, orain arteko ohitura, nor bere jaioterrian egitekoa, urratuz, anitz beste arrazoiren artean Euskaltzaindiak gaurdaino hau bezalako egoitza nagusirik izan ez duelako, bai eta Bizkaiko, eta berariaz Bilboko, euskarari bultzada bortitza emateko, bizpahiru egunotan euskararen oihartzun ozena hirian entzunarazirik, baina ororen gaindik horrelako toki bikain batek edozeinen Euskaltzaindian sartzea zor zaion legez duintzen, edertzen eta dotoretzen duelako, nahiz Euskaltzain berri andere honen kasuan iruditzen zaidan berak duela bere xumean eta apalean tokia dotoretzenago, edertzenago eta duintzenago etxeak bera egiten duen baino.

Toki honetanxe izan zinen, Miren, aurtengo apirilaren 24ean, Euskaltzaindiaren hileroko bilkuran, euskaltzain oso hautatua —toki honetan hautatu den lehena—, eta handik bizpahiru egunetara gazetari bati zeure Euskaltzaindian sartzean aitabitxi ni izateko gogoia agertu zenionean, beldurrak hartu ninduen, eta oraindik ez nau utzi, ez nuen beteko gaztetan Loiolan lehenik eta Salamankan gero irakurri eta aztertu nituen Erromako idazleek mintzatzen nintzenerako eman zidaten aholkua: “Sine ira et studio”; mintza nendila beti, alegia, gorrotorik eta maitasunik gabe. Egun esku artean dudan egiteko honetan aholkuaren lehen erdia erraza bezain zaila iruditzen zait betetzen bigarrena, ez baitira alferrik igaro

berriki hogei urte juxtu, 1972ko urrian EUTGko ikasgela batean Latineko irakasle honek eta hamasei urteko neska begi-bizi batek elkar lehen aldiz ezagutzean, betiko atxikidura irmo bat bien artean sortu zenez geroztik. Maitasunik gabe eta hotz-hotz mintza nadin eskatzea suak erre ez dezan nahi izatea bezala iruditzen zait.

Ondotxo dakit Miren Azkaratek berak hala nahi lukeela eta latinezko esaera erabat bere egiten duela, higuin baititu bere buruari eginiko gehiegizko gorespenak eta laudorioak, mila bider nahiago bailuke festa honek guziak berarekin zerrikusirik ez balu eta, ezinbestean izan behar duelarik, nahi bailuke aspaldi amaitua egotea guzia; eta oraintxe ere dagoen lekutik begira dagokidala, beste esaera zuhur hura esaten ari zaidala iruditzen zait: “Ne quid nimis”, “Medén ágan”; Kontuz gero gehiegixko mintza, alegia. Ez nuke nahi halakorik egin, egia esan; ez da ene gogoia eta asmoa gehiegizko goresmenik egitea, gehiegizkorik gabe ere bai baita zer esan Euskaltzain berri honen gainean.

Halaz eta guztiz ere bistan da, Miren, gaur ezin nakizukeela damurik osoro laket izan, ezin baita zure gogo hori inola ere ezkondu ene gaurko eginbidearekin eta honi ezin baitiezaioket inondik uko egin neure barrena erru pisu batez astundu gabe. Ene eginbidea, izan ere, zuk zerorrek neri soinean ezarritakoa, zure aitabitxi izateari dagozkion lanak ahalik ongienean betetzea da, eta hauek moldez eta taxuz burutzeko agirian ipini behar ditut noraezean zuk Euskaltzain oso hautatua izateko uztatuak dituzun merezimenduak eta puntuak; ostera biotako bat geldituko da gaizki, edo zu, iduriko duelako merezimendurik gabe izendatua izan zinela, edo ni, zuk aski merezimendu izanik, haiek behar bezain agirian ipini ez ditudalako.

Horiетara etorri baino lehen, halere, zurekiko dudan zorra kitatu nahi dut eta bihotz-bihotzez zuri eskerrak eman, beste gehiagoren eta ni baino hobeen artean zure aitabitxi izateko ni hautatu eta neri eskatu didazulako, otoi, izan nadin. Atsegin ezin hobea da enetzat, egia esan, eta ohore txit handia irakaskuntzan daramatzadan 30 urteotan ene eskue-tatik igaro diren milaka gazteetatik bana-banako ikaslea batetik eta bestetik hamar urtez irakaskidea izan zenaren aitabitxi izatea gertari handi honetan.

* * *

Apirilaren 24ean izan zinen, diodan berriro, etxe honetanxe Euskaltzain oso hautatua eta ez dirudi muturka bizian aritu zirenik bozkazaleak euskaltzain izateko diñe zinen ala ez erabakitzerakoan. Hori baitzen erabaki behar zena, diñe zinen ala ez, eta ez beste norbait baino diñago zinen ala ez, areriorik izan ez zenuenez gero. Bozketa ezin gardenagoa izan zen, lehen bozaldian atera baizinen hautatua kontrako bozik gabe,

“nemine discrepante”, hogeita lau bozetatik hogeita bi izan baitzenituen aldeko, eta beste biak ez aldeko eta ez kontrako. Gutxitan gertatu dateke horrelako bateratasunik.

Apirilaren 24ean etxe honetanxe hautatua izan zinenean, gainera, noren eta, zeure hitzaldian azaldu diguzun bezala, On Joxe Migel Barandiaran txiki-handiaren heriotzak utzi zuen hutsunea betetzeko izan zinen hautatua, jarriko zaren aulkiaren azken jabea hura izan baitzen. Oker aritzeko beldurrik gabe esan dezaket egun hartan zeure beteko aulkia zeuregana zenuela eta, ez zuri zegokizukeela zeure neurrikoagorik, ez eta pisu txikia eramaten ohituriko aulkiari neke gutxiago jasanaraziko zionik. On Joxe Migel eta biok elkar harturik zinetela esan behar, hark hiltzean bere aulkia zuri, ez besteri, uzteko. Hain zineten elkarren antzeko! Biok tailuz eta gorputzez txikiak, biok buruz eta bihotzez handiak, biok gogoz ixil, umil eta xotilak.

Horregatik agertu diguzu xeheki zeure hitzaldian zer egin zuen euskararen alde, zein titulu zituen hizkuntzaren eremutik atera gabe euskaltzain izateko, eta horrez gain betiko sailkatuak utzi dituzu haren hizkuntzako lanak hiru multzotan bildurik gaurkoen eta gerokoek eza-gutzarako; ezen, oraintsu gazetari bati esan zenion bezala, jende askoren-tzat arras ezezagunak dira On Joxe Migel Barandiaran zenak euskara arloan egin zituen lanak, eta zuk garai hartan inor gutxi egin zituen ikerlan eder haiek gatik esker ona erakutsi nahi izan diozu zeure hitzaldi honetan. Hark gero beste jakintza arloak hautatu zituen bizitza osoan aztertzeke eta ez zuen uste, euskaltzain oso izendatu zen arren, zerresan handirik zuenik batez ere Hizkuntz Akademia den honetan eta bakanka baizik ez zen etorri ohi bileretara. Zu berriz, hizkuntzalaritza baita zure lanbidea eta zure iker-eremua, hautatua izen zinen egunetik bilkura guzietara etorri zara txintxo-txintxo eta ziur nago etorriko ere zarela ahalko duzunoro.

Apirilaren 24ean hemen zu hautatua izatean gertatu zen lehen esanez gain beste gauzatxo bat ere, orduarte Euskaltzaindiaren baitan sekulan gertatu ez zena: emakume bat euskaltzain oso. Jende askoren bihotzak —eta ez emakumeenak bakarrik— poztu ziren egun hartan albiste hura jakitean eta Euskalerriko telekomunikabideek hurrengo egunetan munduaren lau aldeetara aldarrikatu zuten zure izena eta ustegabeko gertaria. Ustegabekoa, bai; ez noski aurreko azken egunetan, ezen orduan askok uste zuten gero gertatu zena, baina bai aurreko azken urteetan. Diodanaren frogatzat entzun, otoi, gutako bat, gaur zu bezala, Euskaltzaindian lehen aldiz sartzean, gutako beste batek, gaur nik zuri bezala hartze hitzaldia egitean, esan zizkion hitzak, zure hautapenaren gertariari eskerrak ezin gehiago inork esan ahalko dituenak:

“Ohar bakar bat oraino egin behar banu, ausartuko nintzateke bada honen aitortzera: Ezberdintasun bat “ments” dugula —Ziberotarrek dio-

ten bezala— gure lagunartean: nahiz andreak —eta nolakoak— onartzen ditugun gure elkartearen goiko eta beheko mailetan, bai ohorezkoen bai urgazleen bai laguntzaileen lerroetan, euskaltzain tituludunen sailan ez dugu oraino emakumezko bihirik sarrerazi. Maila horretan, Euskal Herriko etxekanderei Euskaltzaindiko atea hersten zaizkie orainokoa” (1).

Hala zioen duela urte gutxi hemengo ene lagun batek eta ez du gehiago hark ez bestek halakorik esaterik izango. Bost urte aski izan dira orduan egiak ziren, eta denboraldi luzean egiak izango zirela uste genuen hitz horiek ustel ateratzeko. Geroak esango du lehengo horiei erantsi zizkien beste hitzok ere gezur gertatuko diren ala ez egunen batean, honela baitzioen gero:

“Historiazale batek erranen dit menturaz, kontuz ibili behar dugula gure Euskal Herri honetan gure emakumeekin: ez dakigun gerta Joani Paulo II.aren egun hauetan, Gregorio VII.aren mendean bezalako zerbait izigarri: Iruñeko apezpikuaren alkiak jabetu baitzen omen, orduan, Santxa delako kondesa” (2).

Apezpikuaren ez baina —diot nik—, baldin gaur hartu duzunaren baino goragoko beste baten jabe egitera egunen batean iristen bazina, jakizu ez ginatkeela euskaltzainok gizaseme bat iristen balitz baino beldurrago eta jelskorrago izango. Asko aldatu da Euskaltzaindia, izan ere, eta eurite handiak jasan ditu aspaldi honetan Euskal Herriak, beste baten sartzean bere aitabitxiak “aldakuntzarik haundiena da apaizen ordeztuz sartzan direla laikoak” (3) esan zuenetik hona. Handiena omen zelako aldakuntza hura iada txikia bilakatu da gerokoen ondoan. Gaurko beste hau bai dela aldakuntza handia!

Zuk, Miren, hain handia izan ez balitz nahiago zenukeelakoan nago. Egun haietan eta ondokoetan ere ez zaituzte bakean utzi alde bateko eta beste gazetarietara eta, halako segidaz zeure burua inguraturik ikustean, haietako bati susmoa agertu diozu berriki, zu Euskaltzain oso izendaturiko lehen emazteki izateari gure gizarte txiki honetan garrantzi gehiegixko eman zaiolako. Ez zaitu harritu behar, egun batzuetako zure eta zure familiakoen nekeak gorabehera, emaztekiak pozik egoteak eta zure hautapena bere garaite bat bezala hartu izateak. Ez zaie ene ustez motiborik falta.

Horrek ez du esan nahi, ordea —eta ez dut uste hori inork pentsatu duenik, eta inork pentsatu badu, beretzat okerrago, aurki erakutsiko baitiot ez dela egia—, horrek ez du esan nahi, diot, emazteki zarelako hautatu zaitugunik, ezta hurrik eman ere. Ez zaitugu hautatu emazteki zarelako

(1) Ikus *Euskera* (1988), 31. or.

(2) Hor berean, 32. or.

(3) Ikus *Euskera*, 745. or.

ko, baizik zaren bezalako emaztekoa zarelako, eta hautatua izateko zeure gaztean dagoeneko arrazoi eta titulu pilo bat alde zeneukalako edo, gazetari baten hitzez esateko, “Fruituz betetako arbola gaztea” (4) zarelako. Ez zuen arrazoi faltarik orain dela zazpi hilabete honela idatzi zue-nak: “Miren Azkarate trebeziaz, lanez eta merezimenduz edozein gizon-zezkoen pareko delako hautatu du Euskaltzaindiak, ez emakumezkoa delako” (5).

Zergatik hautatu zaitugu? Zein ziren zure titulu eta zure merezimen-duak? Horretarakoxe nago ni, hain zuzen, orain nagoen tokian, puntu hori argitzeko, eta luzatu gabe ekingo diot zeregin horri.

* * *

Gaur dira hogeita hamazazpi urte mundura etorri zinela. Zorionak eta urte askotan! Aita-amak Bergaran jaiok izanik eta zu Donostian jaiok ez ezik hazia, umetandik ikasi zenituen bi euskalki, etxean bata, auzoan bestea. Lau urte zenituela hasi zinen ikastola batean eta zortzi betetzean San Bartolomeko monjen ikastetxean. Argia, zolia, bizia txiki-txikitandik, diotenez, nahiz erronka handirik ez jo. Batxilerra amaitzean EUTGn hasi zinen han orduan zen Filologia bakarra, erromanikoa, ikasten. Ordukoa da gure bion elkar ezagutzea. Ikaskideei galdetzen bazaie orduko Mire-nez, hitz bakarra esaten dute: “Langilea”. Bost urteren buruan, 1977an, bururatu zenuen karrera. Jakin nahi dituenarentzat hona karreraren zehar atara zituen emaitzak: bederatzi BIKAIN eta hamazortzi MATRIKULA edo Ohorezko Aipamen, hauetako lau –zergatik ez esan? ilarrainbide da hori gaur enetzat– nik emanak: Latinean bi eta Euskaran beste bi. Aspaldi igerri nion nonbait nolakoa izango zen.

Garai hartan lizentziatu titulua eskuratzeko eta doktoradutzako bidean barrena abiatu ahal izateko ‘tesi txikia’ zelakoa oratu behar izaten zen eta epaimahain baten aurrean defendatu. 1979ko maiatza zen. Hona ene laguntza urriaz ikertu zuen gaia: “-n edo -z atzizkia daramaten denborazko izen sintagmak Axularrengan”. Zer esanik ez “Sobresaliente cum laude” kalifikazioa eskuratu zuela. Pentsa ezazue orduko nola ezagutuko zuen Lapurdiko idazle famatua, eta hori ez Euskal Filologia ikasirik, ezpada Erromanikoa, esan bezala.

1980an EE.BB.etako Illinoisko Unibertsitatean izan zen zortzi hilabetez batikipat sintaxia eta semantika lantzen. Hurrengo urteko udan beste hiru hilabete eman zituen han bertan ikastaro bat egiten eta bienbitar-tean Mario Saltarelli irakaslearekin “ikertzaile laguntzaile” gisa aritu zen lanean euskal gramatikaren eremuan. Orduko bazuen bi urte Deustuko

(4) *Deia*, 1992.IV.26, argazkipean.

(5) Hor berean, orri berean.

Unibertsitatean, Donostiako egoitzako Filosofia eta Letren Fakultatean, Euskal Filologiako sailean, Euskal Morfosintaxia eta Lexikoa irakasten ari zela. Hamar urtez (1978-1988) aritu izan zen han —atzo arte, esaterako—. Lanez okituriko eta mozkinaz hornituriko urte horietan hasi zuen Koldo Mitxelena zenduaren zuzendaritzapean eta gero denok dakigun arrazoia-gatik Ibon Sarasolarenean bururatu tesi famatu-txalotua: “Hitz Konposatuak Euskaraz”, lehen horretaz zerbait idatzia zutenen lanak aise gailentzen dituen eta geroztik, eta urte handietan seguru aski, gai horretaz zerbait ikertu nahiko dutenek nahitaz erabili beharko dutena. Euskal Herriko Unibertsitatean irakurri zuen 1988ko maiatzean eta “Apto cum laude por unanimidad” eman genion epaimahaikook batere errietary gabe. Urte berean “Azkue ikerketa saria” irabazi zuen.

Orduan hobe beharrez Deustuko Unibertsitatea uztea erabaki zuen eta geroztiko lau urte hauetan Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da Zorroagako Pedagogia sailean, Euskara Teknikoa I eta II gaiak irakasten dituelarik, eta Irakasle Titular izatea irabazi zuelarik duela hamairu hilabete. Batean zein bestean irakasle argi, txukun eta txairoa; nonnahi hitzun egokia eta hizlari doi eta zehatza. Jendeari ez zaizkio oraindik ahaztu telebistan, “Berbetan” zeritzan programa batean, beste lagun potolo eta burusoil baten ondoan egin zituen euskarari buruzko hirurogei eta piku saio haiek, eta askotan galdetzen didate andereño panpox, gauzak ipin-apan kontatzen zituen hartaz. Eta euskaraz bakarrik kontatzen balitu, ez litzateke agian mirakulu, baina ez, gaztelera ere bai, eta are inglese ere frantses ezin pulikiago mintzatuko zaizu, biok ere oso ongi menderatzen baititu, eta alemana ere edozer irakurtzeko eta edozein aditzeko adina bai.

Azken urteotan egin dituen lan gehiagoren artean berariaz aipatu nahi dut hitzaldi eta ikastaro sail handi bat, han eta hemen emana, euskal lexikoaren gainean batez ere. EURALEX, Europako Lexikografi Elkarte, kide izendatu zuten 1988an eta Elkarte horrek antolatutako biltzarreetan eta hizkuntzalarien arteko jardunaldietan hartu ohi du esku. Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena medio zelarik sortu zen batzordeko kide da bigarrenaren izenean. *Euskera*, *ASJU* eta *Tantak* aldizkarietan artikuluak argitaratu ditu, *Mundaiz* izenekoan ere bai.

Bospasei Kongresutan esku edukia da. 1981ean *North Eastern Linguistic Society*-k EE.BB.etan antolatutakoan, beste bi lagunekin elkar lanean *Governed Anaphors in Basque* zeritzan lana aurkeztu zuen, eta 1982an *Berkely Linguistic Society*-k antolatutakoan lehengo lagun berekin beste lan bat. EURALEXen bi azken kongresuetan ere izan da eta bietan artikulu bana irakurri du.

Argitalpenek hogeitau gutxienez osatzen dituzte, horietako zenbait beste lagun batzuekin elkar lanean eginak, hala nola *Euskara lantzen*,

hiru liburuki; *Hizkuntzalaritza Hiztegia, Léxico de los refranes de B. de Zalgiz, Basque Grammar, Euskara: Erdiko Zikloko programazioaz* eta abar. Beste zenbait berak onduak, esate baterako *Euskal konposizioaren inguruan, Euskal “-garri” vs. latinezko “-bilis”*: *bi erabilera ezberdin, Erator-atzizki ala eratorpen-atzizki?, Generative Morphology and Basque Compounds*, eta abar. Aipamen berezia merezi dute “Hitz Elkartuak Euskaraz” bere tesi argitaratuak, Berlinen eta New Yorken batera hiru hizkuntzatan argitaratzen den *Wörterbücher, Dictionaries, Dictionnaires* deritzan Enziklopedian iaz atera zuen “Basque Lexicography” artikulua eta azkenik Euskaltzaindian aspaldi honetan egiten ari den lanak.

Euskaltzaindiarekin lanean duela 13 urte, euskarazko D tituluak ematen ziren garaian, dagoeneko hasia zen. 1983an “urgazle” izendatu zenez geroztik Batzorde baterako eta besterako egin dituen lanak, idatzi dituen artikulua eta paratu dituen txostenak, eta batez ere horien bileretan eta bileren beren prestakuntzan eman dituen orduak ezin konta ahala dira. Garai bateko “Irakasle batzorde”-ko kide izateaz gainera, orain berean beste hirutakoa da: “Euskara Batuko Hiztegia” deritzan sortu berrikoa, “Lexiko Erizpidean Finkapena”-koa hastetik bertatik eta bere arduradun gainera, eta azkenik “Gramatika”-koa ere bai sortu zen momentutik beretik. Batzorde horietako zure kideek, eta bereziki horien buruek, ongixto dakite —dakigu— zein seriooki eta sakonki aritzen zaren lanean, zein parte handia hartzen duzun bileretan sortzen diren kalapita eta eztabaidetan, eta zein argi, zorrotz eta gisakoak izan ohi diren beti zure oharra eta argibideak. Ia hogeitxosten dira bi azken Batzorde hauetako bileretan aurkeztu izan dituzunak.

* * *

Honenbestez argitutzat ematen dut neure buruari gorago egin diodan galdera, “Zergatik izendatu zaitugu euskaltzain oso?, eta zure hartarako merezimenduak eta tituluak guzioran agirian ipinitzat. Beste galdera bati nahi nioke orain laburki erantzun neure hitzaldia azkendu baino lehen: Zertarako hautatu zaitugu? Araudia “Xedeak eta izaera” deritzan lehen atalean horretaz mintzo zaigunez gero, hori nik esan beharrik ez duzula esango didazu, badakizula erantzuna, eta aldez hala da. Nik ordea ez dut nahi bi lehen letren pean azaltzen zaizkigun xedeak —“a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea. b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.”— berariaz zuri gomen datu eta gogoratu baizik, ongi baitakit lantegi horretarako zarela bereziki dohatua eta gogatu.

Gutako bakoitzak bere sentiberatasuna du nahitaez eta hizkuntzaren egoeran eta bilakaeran bati gertari batzuek ukitzen diote gihian eta beste-ari besteez. Asko edo gutxi guziori erasaten digula uste dut ikustek nola hasten diren goizetik gabera, ez euskaldunberriak, horiek txaloak

baizik ez baitute merezi, baizik zenbait hizlari, irakasle, gazetari, esatari, euskara jatorraren jabe direnak, zerbait esateko beti erabili izan duten esanmoldea baztertu eta berria, inoiz esan ez dena, erabiltzen, hobe beharrez —hala uste berek—, baina egiazki ezjakinez eta guzion kaltetan.

Iruditzen zait Euskaltzaina, besteak beste, gordailu baten zaindaria dela, euskara zuzenaren begirale eta kutzazain giltzeduna, “qui profert de thesauro suo nova et vetera” —“bere gordailutik gai zahar eta berriak ateratzen dituen”—, behin guzion Maisuak esan zuen bezala, zer den ongi eta zer ez irakatsiko duena; eta hainbestez ez genukeela pasiboki jasan behar batzuen apetak bere gogara alda eta oker dezan beti esan izan dena. Batzuen apetak, bai, ezen herri xeheak askotan lehengoa atxikitzen du eta lehengoan irauten, honek edo hark asmatu molde berriari muzin egirik.

Hor ditugu, esate baterako, orain txitian-pitian entzuten diren pitxi hauek edo hauen antzekoak: “Zenbat kosta dezakeen jakin nahi dut”, “kosta” iragangaitza eta “balio” iragankorra gauza bera balira bezala; edo “Hamar egun iraun ditu”, osagarri zuzena eta denborazko akusatiboa deitzen dena bereizten jakin gabe; edota “Bost durotan garestitu”, inoiz inork “Zenbatetan garestitu da?” galdetuko balu bezala eta ez “Zenbat garestitu da?”. Edota egun hauetanxe Donostian zabaldu diren kartel handietan irakur daitekeen “...1.500 milioi balio dizkigu”, *zenbat (balio)* osagarri zuzena balitz bezala, adizkia zor ez zaion pluralgilez (-zki) horniturik; *balio* aditzak prezioa adierazten duenean onartzen ez duen datiboa txertaturik (“zerbitu” esan nahi duenean bai, noski); hitz batean, mundu guziak esaten duen “kosta zaigu”-ren ordez “balio dizkigu” aldrebesa erabiliz. Edota ezezko perpausetan ezin erabil daitekeen “dagoeneko” legez kontra sartu eta “Kontratua ez da dagoeneko sinatu” esanez, oker noski.

Hor dugu ere joan den bost urtetik hona, gutxi gorabehera, modan jarri zaigun “Ongi etorria(k)”, beti esan izan den “iOngi etorri!” soilaren ordez. Diogun garbi, modan jarria hemen, hegualdean, ez iparraldean, ez baitu aspaldi Mauleko alkate jaunak “Unkhi xin!” ederrez hartu gintuela Oihenarten mendeurrenaren omenaldiko irekieran. Askoz aspaldiago du —hogeita hamar urte edo—, baina gogoan dut, Mitxelena jauna eta beste hiruzpalau lagun Erronkarira uda batean joan zirelarik, han oraindik bizi ziren eta euskaraz zekiten amonaxo bakanen ahotik hiltzeaz zegoen hizkera haren azken oihartzunak entzutera eta aztarrenak jasotzera, nola ikasi genuen harriduraz orduan zer zen ez genekien “Onki xin!” gozo batez hartu zituztela. Lehenago oraindik XVII. mendean Ziburuko Etxeberri bere “Manual Debozionezkoan” zortzi bertsotan barrena (6) ez

(6) 2300-2308 bertsoak.

behin edo bitan, baizik bost bider oihukarazten dio Aita Eternoari UNGUI ETHORRI!, dohatsuen tropelak zeruko ateetara iristen ikustean. Gatozen hurbilago. Egun batzuk baizik ez du Gipuzkoako herri batean, egunkariak esan dutenez, agertu dela hormetan idatzia espetxetik ateratako batentzat “Ongi etorri!”. Beraz herria ez da aldatu, herriak lehengoari eta betikoari eusten dio; hemen ez du balio esateak hizkuntzak ezinbestean aldatzen direla.

Ala ez dugu egunoro esaten “Ondo ibili!”, “Ondo lo egin!”, “Ongi izan!” eta abar? Ala goizeko “Buenos días” ere hemendik aurrera “Egun onak!” eta gaueko “Buenas noches” “Gabonak” esaten hasi behar dugu, gazteleraz pluralak direlako? Ez dut uste. Edonork daki halere, jakina, horrek guziak galerazten ez duela, bistan den bezala, aipatu molde hori mugatzaileaz osatzea predikatu gisa edo izen gisa erabiltzean.

Hizkuntza berritzea on da eta on ez balitz ere, ezinbesteko da eta ongi betor hizkuntzaren berritzea, baina harik eta herrian erabat sustraitu eta errotu arte, ez genuke ene ustez euskaltzainok berrikeriarik onartu behar eta ez genuke inola ere, ez diot molde berrien, baizik betikoen kontrako berrikerien, zabaltzaile eta barreiatzaile izan behar, baizik On Joxe Migel Barandiaran bezala herriko formen eta moldeen biltzaile eta begirale zintzo. Eskerrak herria egosgogorra izan ohi den eta betiko jokamoldeak setaz eta isituki atxiki ohi dituen!

* * *

Horra laburki esana zertako uste dudan euskaltzain izendatu zaitugula edo, neure buruaz baizik hitz egin ez dezadan, zertako —beste egiteko gehiagoren artean, noski— eman nizun nik bederen boza. Era askotako langileak eta kideak behar ditu segurki egungo egunean Euskaltzaindiak, baina zu bezalako hizkuntzalariak beharrago, hurrengo urteetan burutan aterako badu duela ia hogeita bost urte Arantzazun hasi zuen euskara batzearen lan gaitza. Ondotxo dakizu, haatik, ez zarela eginbehar horretarako Euskaltzaindian zurtz eta bakar aurkituko; badituzu ofizio bereko langile trebeak, talde ona osatuko duzue, agian Euskaltzaindiak bere baitan sekula izan duen onena, nahiz duela bost urte betiko galdu genuenak parerik nekez izango duen.

Ongi etorri, beraz, saldo honetara, Miren, eta, orain azkentzera noan zeregin honetan Euskaltzaindiaren izenean zerrorrek hautaturik aritu naitenez gero, neure izenean ez ezen Euskaltzaindiarenean ere egiten dizut ongi etorri anaikor hau, eta bide batez zure etxekoei zorionak ematen dizkiet, bereziki ezin etorriaz etxean gelditu den zure amari, hemen dauden zure ahizpa eta zure senarrari, eta, nola ez, amaren urratsei jarraitzen bazaizkie urrun iritsiko direla agintzen diedan zure alabatxo

Izaro eta Maiteri. Eta azkenik, hastea bezala izan dadin burutzea, Bilboko hiriari, lehen emakume euskaltzainak donostiarra izanagatik haren baitan, eta ez Donostian, egin nahi izan duelako eta egin duelako Euskaltzaindian sartzea. Gabon guzioi!